

55/1989 DEKRETUAREN TESTU BIRMOLDATUA, MARTXOAREN 7KOA, EUSKADIKO ESKOLA-KONTSEILUEI BURUZKO URRIAREN 28KO 13/1988 LEGEA GARATZEKO EUSKADIKO ESKOLA-KONTSEILUA ARAUPETZEN DUENA. (E.H.A.A. 55 ZENBAKIA -1989.EKO MARTXOAK 21).

Ekainaren 19ko 164/1990 eta Martxoaren 10eko 172/1994 Dekretuen egindako aldaketak eransten dira.

Euskal Autonomi Elkartearen eremuan unibertsitatekoen besteko irakaskuntzaren guztizko egitaraugintzan aholkuak eskatu, eskuhartu eta zalantzak argitzeko ihardutze-sailak sortarazi zituen urriaren 28ko 13/1988 Legeak, eta Euskadiko Eskola-Kontseilua eratu, gai horrekin zerikusia duten gizarte-sail guztien partaidetzarako aholkuak emateko goren-mailako ihardutze-sail.

Euskadiko Eskola-Kontseiluaren eratze-modua eta egitekoak zehaztu ondoren, urriaren 28ko 13/1988 Legeak, urgazlaritzarako ihardutze-sail horren kideez aritzen den 10. atalaren lehenengo hiru idazatietan adierazitako ordezkarien banaketa, geroago araudi bidez garatzeko uzten du.

Beraz, banaketa hori eta bai bere antolatze eta ihardutze-modua ere zehaztea bidezko gertatzen da, ihardutze-sail horren eginkortasuna bermatzeko.

Horiek horrela, eta urriaren 28ko 13/1988 Legearen Azken Erabakian dagoen baimenaz baliatuz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailburuaren saloz, eta Jaurlaritzak 1989.eko martxoaren 7an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. atala.- Kontseiluburuak, Kontseiluburuordeak, Kontseilariak eta Idazkariak osatuko dute Euskadiko Eskola-Kontseilua.

2. atala.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailburuak izendatuko du Kontseiluko Lehendakaria kontseilukide direnen artetik. Bera izango da Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluaren buru, batzarretako gai zerrenda finkatuko du eta batzarrak gidatuko ditu, akordioak bete daitezaren ardua izango du eta botaketei ebazpena emango die berdinketa eman dadinean. Kontseilua sortzeari buruzko Legean Kontseiluari ematen zaizkion egitekoak betetzeari dagozkionetan, Kontseiluaren ihardunak bultzatu eta koordinatuko ditu. Era berean, aipatutako organu horren iharduera egokiak eska ditzan egitekoak ere, garatu beharko ditu.

Bere egitekoak betetzen ihardun dezan bitartean, aldibaterako langile bati dagokion soldata izango du, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioako

Zuzendarientzako ezarrira dagoen zenbateko berdinez. Administrazioako Goi Kargudunei aplikatu dakizkiekeen Xedapenetan ezartzen dena izango da dedikazio eta inkompatibilitate erregimena, inkompatibilitatearen peko iharduna, Kontseiluko kide izendatua izatearen zergatiaren oinarriaren baldintza izan dadinean izan ezik.

3. atala.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailburuak izendatuko du Kontseiluburuordea, Kontseilukideen artetik. Bere egitekoak honako hauek izango dira: Kontseiluburuak izendatzeke, kanpoan edo gaisorik egon dadinetan haren ordezkotza egitea eta Kontseiluburuak bere esku utz ditzan ahalmenak.

:

4. atala.- 1. Honako hauek izango dira Euskadiko Eskola-Kontseiluko kide:

a) Euskadiko unibertsitatekoen besteko irakaskuntzako sei irakasle, Irakasleen Elkarte eta Sindikatuek, bakoitzaren ordezkotza-mailaren heinean egindako saloz.

Irakasleak honako era honetan banatuko dira:

- Irakaskuntza publikoa: lau irakasle, horietatik bi Lehenengo Mailako Irakaskuntza izango dira eta beste bi bigarren Mailako Irakaskuntzakoak.

- Irakaskuntza pribatua: bi irakasle, horietatik bat Lehengo Mailako Irakaskuntzakoak izango da eta beste bat Bigarren Mailako Irakaskuntzakoak.

b) Euskadiko unibertsitatez besteko irakaskuntzako ikasleen sei guraso. Ordezkaririk ugariaren dituzten Konfederakunde edo Federakundeek egingo dute horien izendapena, bakoitzak dituen kideak kontutan hartuz.

Honako era honetan banatuko dira ikasleen gurasoak:

- Irakaskuntza Publikoa: hiru guraso

-Irakaskuntza Pribatua: hiru guraso.

- Horretarako izendatuak izan daitezkeen gurasoetariko hiruk, Lehenengo Mailako Irakaskuntzaren Ordezkotza egingo dute eta beste hiruk Bigarren Mailako Irakaskuntzarena.

c) Euskadiko unibertsitatez besteko irakaskuntzako sei ikasle. Ikasleen artean ordezkaririk ugariaren duten Konfederakundeek edo Federakundeek, Elkarteek eta Batakundeek egingo dute horien aldeko proposamena, bakoitzak dituen kideak kontutan hartuz.

Bigarren Mailako Irakaskuntzako eta Goi Mailako Gradu Lanbide Heziketako ikasleak, honako era honetan bananduko dira:

- Irakaskuntza publikoa: hiru ikasle.

- Irakaskuntza pribatua: hiru ikasle.

d) Ardulararitzako eta Zerbitzuetako lanarigoaren ordezkari bi, sindikaritzaren erakundeek beren ordezkotza-mailaren heinean izendatuko dituztenak.

e) Jabetzapeko ikastetxeetako bi arduradun, sindikaritzaren erakundeek beren ordezkotza-mailaren heinean izendatuko dituztenak.

f) Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bat, Unibertsitateko Jaurtze-Batzordeak izendatuko duena.

g) Autonomi Elkartearen eremuan ordezkotza-mailarik haundieneko langile-sindikatuaren hiru ordezkari. 13/1988 Legearen 10. artikularen azken txatalak dioenez, ordezkotza maila hori Euskal Autonomi Elkartearen mugartean bertan dagoen heina kontutan hartuz baino ez da zehaztuko.

h) Euskal Autonomi Elkartearen eremuko ugazaba-erakundearen hiru ordezkari, beren ordezkotza-mailaren heinean.

i) Hezkuntza-Ardulararitzako lau ordezkari, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailak izendatuko dituenak.

j) Hezkuntza-alorrean ospe haundiko lau lagun, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailburuak izendatuko dituenak.

k) Euskadiko Udal-Elkarte edo baterakundeek beren ordezkotza-mailaren heinean, eta, beti ere, Kondaira-Lurralde bakoitzeko Kontseilari bat gutxienez bertan izatea bermatuz izendatutako Toki-Ardulararitzaren hiru ordezkari.

l) Euskal Autonomi Elkarteko Doktore eta Lizentziadunen Elkartearen ordezkari bat.

ll) Elkarkide-kopuruari begira ordezkotza-mailarik haundienetako Irakaspidetza-Elkarteen ordezkari bat.

m) Euskadiko Gazteriaren Kontseilu Nagusiko ordezkari bat.

2. Euskadiko Eskola-Kontseiluak, bere gain dituen egitekoak hobeto gauzatzeko, teknika-alorreko prestakuntza kontutan hartuz gai ezberdinekiko erizpenak eman ditzaketen eta Kontseiluak berak beharrezko eritzitako lagunak egon ahal izango dira bere bilkuretan eta hitz egiteko eskubidea baino ez dute izango.

3. Atal honen lehengo txatalean aipatutako taldeei izendatu beharreko kontseilari-zenbatekoa, hala badagokio, dagokien ordezkaritza-mailaren heinean egingo da.

4. Atal Honen Antolakunde, Baltzu, Bazkun edo Baterakundeen ordezkotza-maila neurtzeko, Euskal Autonomi Elkartearen eremuan duten ordezkotza-mailari begira baino ez da egingo.

5. atala.- 1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerteka-Sailak izendatuko ditu Euskadiko Eskola-Kontseilukideak, horretarako saloak jaso ondoren hala badagokio.

2. Laugarren atalak aipatzen dituen Kontseilari-Talde bakoitzari dagozkien Antolakunde, Baltzu, Bazkun, Baterakunde edo Iraskundeek, beren ordezkarietarako saloa egingo diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailari, horretarako saloa Euskadiko Eskola-Kontseilua osatu edo berritu baino 20 egun lehenago bidaliz, arauz beste edozein agindu ematen ez bada salbu.

6. atala.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailburuak izendatuko du Euskadiko Eskola-Kontseiluko Idazkaria, Sailari atxikitakoen artetik.

Osoko Bilkura eta Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko Idazkari ihardungo du Idazkariak eta horien bilkura-agiriak egingo ditu. Bilkur horietan hitz egiteko eskubidea izango du baina ez botorik ematekoa.

Idazkariak, Kontseiluburuaren izenean, beharrezko eritzitako argibide eta agiriak eskatu ahal izango dizkie Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Saileko agintariei, Euskadiko Eskola-Kontseiluak ebazpen eta eritzia eman eta saloak egin ahal ditzan.

7. atala.- 1. Euskadiko Eskola-Kontseiluek 4 urteko aginte-aldia izango dute.

2. Euskadiko Eskola-Kontseiluen osakideen erdia bi urtetik behin berriztatu ala sendetsi egingo dira, 4. atalak aipatzen dituen Kontseilari-talde bakoitzean, f), k), l) eta ll) taldeak salbu, beren aginte-aldia bukatu baino bi hilabete lehenago, 4 eta 5. ataletan zehaztutako bideari jarraituz.

Kontseilarien zenbatekoa bakotxia izatekotan, erdia eta baten berriztapen ala sendespena egingo da, eta hurrengoan gainontzekoena.

8. atala.- 1. Honako hauek izango dira Euskadiko Eskola-Kontseilariak beren kargua uzteko zioak:

a) Beren aginte-aldia bukatzea.

b) Haiek hala eskatzea.

c) Berriztapena.

d) Talde baten ordezkariak izategatik kontseilari direnek, talde-ordezkariz izateari utz diezaiotenean.

e) Kontseilari izendapena jasotzeko betetzen zuten beste edozein eskakizun betetzeari utz diezaiotenean.

f) Herri-karguak betetzeko gaitasun gabetuak egon daitezenean.

g) Ezintasun iraunkor edo heriotzagatik.

2. Karguren bat hutsik gelditzekotan, laugarren eta bosgarren ataletan zehaztutako moduari jarraituz bete behar izango da. Kontseiluko kide berriak geratzen den aldirako izendapena jasoko du, kargua utz dezanaren aginte-aldia betetzeko.

9. atala.- 1. Euskadiko Eskola-Batzordeak Osoko Bilkuraz eta Batzordeaz ihardungo du.

2. Kontseiluburuak, Kontseiluburuordeak, Kontseilariak eta Idazkariak osatzen dute Euskadiko Eskola-Batzordearen Osoko Bilkura.

3. Eskola-Batzordearen Osoko Bilkurak erantzun beharreko gaiak honako hauek izango dira:

a) Irakaskuntzako egitarauketa orokorra.

b) Hezkuntzarako eskubideaz benetan baliatzearekin, irakaskuntzarako askatasunarekin eta Konstituzioaren 27. atalak herri-agintaritzei agintzen dizkien eginbeharrak betetzearekin artezko zerikusia izan dezaten Legeen Aintzin-Egitasmoak eta orotariko xedapenen egitasmoak.

c) Egitarauak berriztatu eta saioaldian jartzeko egitarauak eta irakaskuntzarako jarraibideak.

d) Irakaskuntzako maila bakoitzean dauden eredu ezberdinei dagozkien hizkuntza-alarreko helburuak eta bai beren araubideketarako oinarrizko erizpideak ere zehaztea.

e) Gizartearengandik hezkuntza-elkarteari zuzen daitezen hezkuntza-eskaintza osagarriek jarraitu beharreko oinarrizko helburuak eta elkarkidetze-erizpideak zehaztea.

f) Lanarigoarekiko politikaren oinarrizko erizpideak, lanarien beharrari eta horien prestakuntza eta hobekuntzari begira.

g) Irakaskuntza-alarreko alderdiekin zerikusia izan dezan beste edozein gairekiko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailak eskatu diezazkion aholkuak.

4. Euskadiko Eskola-Kontseiluko Osoko Bilkurak honako hauek ere izango ditu egiteko:

a) Euskal Autonomi Elkartearen irakaskuntza dagoeneko egoerari buruzko urteko erizpen-txostena eta Kontseiluak egindako ekintzapideei buruzko txostena.

b) Aurreko txatalean adierazitako gaiei buruz eta Euskal Autonomi Elkartearen eremuko irakaskuntzari atxikitako beste edozeini buruz saloak egitea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailari.

c) Aurreko txatalak aipatzen dituen gaiei buruz Batzorde Iraunkorraren saloak onartu eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailari bidaltzea.

5. Batzorde Iraunkorraren agintepeko gaiez ere aritu ahal izango da, osakideen gehiengoak horrela erabakitzen baldin badu.

6. Euskadiko Eskola-Kontseiluko Osoko Bilkura urtean behin bildu behar izango da nahitaez, hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko urteko txostena eta Batzordearen ekintzapideei buruzko memoria onartzeko; bere agintepeko gaiei buruzko argibideak ematera behartuta egon dadinean, hots, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailak eskatuta eta kide-kopuruaren herenak horrela eska dezanean.

10. atala.- 1. Euskadiko Eskola-Kontseiluko Batzordeak honako hauek izango dira:

a) Batzorde iraunkorra.

b) Egitaraugintza, eraikintza eta ekipamendurakoa.

- c) Hezkuntza-sistemaren antolaketarakoa.
- d) Giza-Baliabidetakoa.
- e) Hezkuntza-helburuetarakoa.
- f) Hezkuntzaren finantzaketarakoa.

2. Euskadiko Eskola-Kontseiluak Batzordeatalak sortarazi ahal izango ditu gai jakinak berariz aztertzeko.

11. atala.- 1. Honako hauek izango dira Batzorde Iraunkorreko kideak:

- a) Kontseiluburua eta Kontseiluburuordea.
- b) Batzordeburuak, Kontseiluburuak izendatu beharrekoak.
- c) Guraso-taldearen ordezkari bat.
- d) Ikasle-taldearen ordezkari bat.
- e) Irakasle-taldearen ordezkari bat.
- f) Toki-Ardurularitzaren ordezkari bat.

Euskadiko Eskola-Kontseiluko Idazkariak Idazkari ihardungo du ere Batzorde Iraunkorreetan.

2. Batzorde Iraunkorrari, arauz, ondorengo gaiei buruz eskatu ahal izango zaio iritzia:

- a) Eskolak emateko tokia sortu, ezabatu eta aldatzeari buruzko onarrizko erizpideekiko.
- b) Ikastetxeak hornitzeari eta eraikitzeari buruzko arau nagusiekiko.
- c) Osagarritarako ekintzen eta hezkuntzaren egokiketaren zio diren oinarrizko irizpideekiko.
- d) Helduen etenik gabeko hezkuntzari buruzko oinarrizko helburuekiko.
- e) Ikaste-sariei eta ikasketa-laguntzei buruzko politikaren zio diren oinarrizko erizpideekiko.

3. Honako hauek ere dagozkio Batzorde Iraunkorrari:

a) Euskal Autonomi Elkartean irakaskuntza dagoeneko egoerari buruzko urteko txostena eta bere ekintzapideei buruzko memoria egitea.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailari eta aurreko txatalarekin zerikusi duten gaiei buruzko saloak egitea eta Kontseiluaren Osoko Bilkurari bere agintepeko gaiei buruzkoak.

12. atala.- 1. Honako hauek izango dira gainontzeko Batzordeetako kideak:

a) Batzordeburua, Kontseiluburuak izendatu beharrekoa.

b) Guraso-taldeko ordezkari bat.

c) Ikasle-taldeko ordezkari bat.

d) Irakasle-taldeko ordezkari bat.

e) Toki-Administrazioko taldeko ordezkari bat.

2. Batzorde Iraunkorrek eskatutako erizpen-txosten guztiak egin behar izango dituzte aipatutako Batzordeek, hark eztabaida ditzan.

13. atala.- 1. Euskadiko Eskola-Kontseilua, ihardutze-moduari gagozkiola, Arduralaritza-Bideari buruzko Legearen I Idazpuruko II Atalburuan zehaztutako araei atxekiko zaie.

2. Euskadiko Eskola-Kontseiluaren ihardutze-araudian finkatu behar izango dira Batzorde Iraunkorren, Batzordeen eta Batzorde-atalen ihardutze-modua.

14. atala.- Euskadiko Eskola-Kontseiluak, bere ekintzapideei buruzko memoria bat eta Euskal Autonomi Elkartean irakaskuntza dagoeneko egoerari buruzko txosten bat egin behar izango ditu. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailari bidali behar izango zaizkio biak ikasturtea bukatu baino lehen eta agerian jarri.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

Lehenengoa.- Euskadiko Eskola Batzordea, unibertsitateko ez besteko irakaskuntzaren Guztizko Araukekin zerikusia duten gizarte-alorrek eskuhartzeko goren mailako ihardutze-saila denez eta 137/1988 Legearen 7. atalak zehazten dizkion egitekoak dituela, kide guztiak bilduz gero eratuko da lehengo deialdian eta kide-zenbateko osoaren erdia eta bat gehiago bilduz gero bigarren deialdian.

Bigarrena.- Kontseilariak izendatzerakoan, ordezkari-gaiei buruz sor litezkeen arazoak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailburuak ebatziko ditu, araudi horretarako finka dezan bideari jarraituz Eskola Kontseilua eratu arte. Euskadiko Eskola Kontseilua eratu ondoren, Kontseiluburuak ebatziko ditu lehen adierazitako arazoak.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Lehenengoa.- Salbuespen gisa, Euskadiko Eskola Batzordea eratu eta bi urte geroago, 4. atalak aipatzen dituen taldeetako Kontseilari-kopuruaren erdiak utziko dio Kontseilari izateari, f), k), l) eta ll) taldeak horretaz kanpo gelditzen direla.

Bigarrena.- Ikastolak Herri-Ikastegi bilakatzeko Lege bidez Eusko Legebiltzarrak finka dezan epea bukatu ondoren, Dekretu honetan adierazitako Ikastola-ordezkotza ezabatu egingo da ondorio guztietarako.

Hirugarrena.- Era dadinetik hasi eta 6 hilabeteko epearen barruan, Euskadiko Eskola-Kontseiluak bere ihardunerako araudi bat gauzatu behar izango du eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailburuari emango, honek onar dezan.

Aurrekoa egitearen kaltetan gabe, behin behingoz, eta behin betikoa onar ez dadin artean, Batzordearen ihardutze-modua araupetuko duen araudi bat gauzatu ahal izango du Sailak. Nolanahi ere, indarra galduko du araudi horrek, berez eta besterik gabe, behin betikoa, hots, aurreko txatalean ohartemandakoaren arauera egindakoa, onar dadinean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Baimena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailari Dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta erabiltzeko beharrezko izan daitezen xedapenak emateko.

Bigarrena.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunean bertan hartuko du indarra Dekretu honek.

Gasteizen, 1989.eko martxoak 7.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailburua,
JOSE RAMON RECALDE DIEZ